

La visibilidad social y política de las víctimas del terrorismo liburuan daude bilduta bi erakundeek 2008ko urriaren 23an antolatu zuten topaketan parte hartutako lagunen ekarpenak. Bilera horretan aztertu ziren nolako ikusgaitasuna izan duten Euskal Herrian terrorismoaren biktimek iragan 40 urte hauetan, nolako jarrera agertu duten komunikabideek, alderdi politikoek eta, oro har, gizarteak, terrorismoaren zartakoa zuzenean jasan duten pertsona eta lagunen aurrean. Helburua zen jakitea nolako bilakaera gertatu den biktimen ezagutza –egiazko nola sinboliko– prozesu horretan, eta ikustea zenbat bide dagoen egiteko oraindik ahalegin zail horretan.

Bi erakundeek 2005ean sinatu zuten Lankidetzaz Hitzarmenetik sortutako hirugarren argitalpena dugu hau. Lan-lerro honi abiadura eman zion lehenbiziko batzarraren ostean ***El significado político de las víctimas del terrorismo*** izeneko lana argitaratu zen, eta bigarren topaketaren ostean, berriz, ***Luces y sombras de la disolución de ETA político-militar*** lana.

La visibilidad social y política de las víctimas del terrorismo egiteke dagoen lana da, nahiz eta, zorionez, bide horretan aurrerapen batzuk gertatzen ari diren. Terrorismoaren biktimek euskal gizartearen bizitza sozial, politiko eta kulturean txertatzeko lana ez da izan, eta ez da izango, erraza. Urte askotan agintariek ezkutatu egin dute biktima horien errealitatea, eta euskal gizarteari berari ere desatsegina gertatzen zaio onartzea nolako portaera izan duen biktimekiko.

Biktimen ikusgaitasuna lortzeko bidean, biktimen senideak izan dira, ikaragarritzko ahaleginaren puruz (goiz edo berandu gizarteak eskertu beharko die ahalegin hori) urrats garrantzitsuenak egin dituztenak biktima horiek ikusgai bihurtzeko euskal gizartearen begietan. Eurek sortutako erakundeetatik egin duten lanarengatik biktimek funtsezko erreferentzia bihurtu dira euskal gizarte eta politikarentzat.

Biktimen senideek biktimen ikusgaitasuna bermatzeko egin duten ahaleginari esker euskal gizarteak irmoago gaitzesten du orain indarkeria terrorista, terrorismoa deslegitimatzen hasi da eta politikaren munduak ere hartu ditu neurri batzuk, bereziki Eusko Legebiltzarreko alderdi guztiek aho batez onartutako Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko 4/2008 Legea. Lege hori adostasun handienarekin onartu zen eta, ondo beharrez, hemendik aurrera erreferentzia izan beharko litzateke alderdi politikoentzat indarkeria terrorista deslegitimatzeke eta bizikidetzaz demokratikoa eraikitzeke hartzen dituzten akordio guztietan.

Argitalpen honetan hiru emakumeren lekukotasuna jasotzen da. Aldi eta zirkunstantzia ezberdinetan biktimen ordezkariak eta lidergoak beren gain hartu duten hiru emakume horiek, bakoitzak bere erakundetik lan eginez, salatu egin dute gizartearen axolagabetasuna, atentatuak klabe politiko hutsean azaltzeko joera eta biktimen kosifikazioa. Hiru emakume horiek, labur esanda, aurpegia jarri diete biktimei, zeintzuk, euren lanagatik izan ez balitz, egun dohakabe bateko prentsa titular bat besterik ez baitziren izango.

El largo recorrido de las víctimas del terrorismo desde su invisibilidad hasta su reconocimiento izeneko mahai-inguruan hiru emakume bildu ziren, bai ETAREN terrorismoaren biktimen senide bezala, eta bai biktimen duintasunarekin konprometitutako erakundeen sustatzaile bezala: **Ana María Vidal-Abarca**, Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren presidente ohia; **Cristina Cuesta**, COVITE-Colectivo de Víctimas del Terrorismo en el País Vasco erakundearen presidentea,

eta **Natividad Rodríguez**, Fernando Buesa Blanco Fundazioaren presidentea. Epe luze bat (1980-2000) estaltzen duten beren lekukotasun pertsonal baliotsuak emateaz gain, beren iritziak ematen dituzte biktimen ikusgaitasunaz eta ETaren amaieraz, beste zenbait gogoetarekin batera.

Argitalpen honetan baita ere jasotzen da Joseba Arregik prestatutako txostena, ***La irrupción de las víctimas en la vida pública***, gaia ikuspegi orokor batetik aztertzen duena. Hurrena, J. Lozaren txostena dator: ***La política ante las víctimas de ETA***, non aztertzen den terrorismoaren biktimek eta euren ikusgaitasunak esparru politiko-instituzionalean izan duten bilakaera, aipamen berezia eginez Eusko Jaurlaritzak ekainaren 19an onartutako Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko 4/2008 Legeari.

Azkenik, liburuan jasotzen dira baita ere **bigarren Mahai-inguruan (*La política ante las víctimas de ETA*)** parte hartu zutenen ekarpenak. Mahai horretako partaide izan ziren 2008an Legebiltzarreko biktimen ponentzia oinarri hartuta 4/2008 Legea idatzi zuten bost euskal alderdiren ordezkari hauek: **Nerea Gálvez**, EB-Berdeak taldearen Arabako Batzar Nagusietako batzarkidea eta **Rafael Larreina** (EA), **Carlos Urquijo** (PP), **Rodolfo Ares** (PSE-EE) eta **Gema González de Txabarri** (EAJ-PNV) Eusko Legebiltzarreko kideak.

Osagarri gisa, liburuaren bukaeran lau eranskin dokumental datoz ETaren biktimek eguneroko prentsan, aldizkari ofizialetan, bibliografia espezializatuan eta dokumentaletan daukaten ikusgaitasunaren testuingurua emateko. Dokumentalarena genero giltzarria da terrorismoaren –zuzeneko nahiz zeharkako– biktimen oroimen eta ezagutza finkatzeko haien lekukotasun pertsonalak gizartean zabalduta.

Bereziki esanguratsua da lan honetako lehen eranskina, **Hemeroteka**, non aurki baitezakegu ETak **Jesús Velasco** (1980-X-10), **Enrique Cuesta** (1982-III-26) eta **Fernando Buesa** (2000-II-22) hil zituelarik –horien senide zuzenak dira lehen Mahai-inguruko partaideak– zazpi egunkaritan erailketa horiez egin zen jarraipenaren lagin bat. Azkenik, liburu hau hainbat oharrez aberastuta dator –azalpen oharrak, ohar bibliografikoak, juridikoak eta periodistikoak, denak ere txostenen edukia argitzera bideratuak. Badakar, baita ere, parte-hartzaile bakoitzaren profil labur bat, argitalpenean agertzen diren sigla eta akronimoen zerrenda bat, eta Aurkibide onomastiko bat, errazago bilatzeko aurkezpenetan, txostenetan, Mahai-inguruetan eta 1. eranskinean ('Hemeroteka') aipatzen diren pertsonak, erakundeak eta elkarteak.